# HERRERA

# Herrera Azaletik



Lerrotxo hauk irakurtzeko zoria duzun herreratar hori, har zazu gure agurrik zintzo ta beroena. Zuri begira gaituzu; zuri eta gurea den hauzoari begira, hemengo zenbait zure begien aurrean jarri nahirik. (Ahal direnak, jakina; besteak hobe ezkutuan gordetzea). Nolako hauzoan bizi geran, zer dioten hemengo elkarteek, Batasuna elkartea, gazteak... guzti horien berri jakingo duzu, azkeneraino irakurtzeko hainbat indar baldin baduzu behintzat.

Hasteko, beraz, agur herreratar denoi: hemen bizi zeratenoi eta urrutira bizitzera ihes egin duzutenoi. Eta herreratar ez den inork lerro kaskar hauk irakurtzeko nahiko astirik hartuko balu, bedi hura ere ongi etorria gure artera. Zabala da gure plaza!

## DONOSTIAKO HEGAL INDUSTRIALA

Euskal herriko bazter gehienek bezala, gureak ere aldaketa ugari eta larriak ikusi ditu azken urteotan. Lan etxe sakabanatu besterik ez zena, ederki asko jantzi da etxez eta jendez. Irratiaz entzun genduen, asko ez dela, Intxaurrondo, Altza eta Herrerako partean Donostiako bizilagunen laurdena bizi dela. Gehiago ere biziko dira, beharbada, gure ustez.

Atera hortik kontuak: handik eta hemendik bildutako jendea gera eta gure erroak ez dira barneegi sartzen hemengo lurrean. Batzuk lehenago heldu ginen, besteak geroago; batzuk hemen jaio ginen, besteak geroxeago honera bildu; batzuk euskal herrietatik bildu dira, besteak urrutiagotik. Baina denak, esateko, heldu berriak gera.

Eta honera bildu gera, hau industri hauzoa delako. Hemen bertan nahiko lantegi, handi ta txiki, baditugu. Inguruetan are gehiago: Pasaiako portuaren inguruan sortu diren enpresa larriak. Bizi beharrak honera gaitu, beraz.

Atera hortik ere kontuak: langile jendea da hemen bizi den gehientsuena, azken orduko aberatsak eta zenbait auzo residentzialetan bizi direnak ezik. (Herreratar ote horiek?). Horrek argitzen ditu hemengo egoera asko: zenbait kultura mailetarako dagoen egarri eskasa euskaltasun pobrea edo anti-euskaltasuna aberats berrien ihesi nahia...

Eta, azkenik, badugu beste baldintza larria: Donostiako hegala gera, hiri aberats eta polit baten bazterra. Eta, hirietako hegalekin maiz gerta ohi denez, hemen ere urbanizazio trixtea ikusten dugu (goragoko barrio residenzial horietan salbu): etxe ta barrioak nola-hala boteak, serbitzu beharrezkoenak falta direla, egon lekurik bat ere ez dela...

Atera hortik ere kontuak: gure artean bizi den hainbat eta hainbat jende ez dela hemen biltzen, etxetik atera orduko Donostiarako edo urrutiragoko bidea hartzen duela. Ezagutu ere nork ezagutzen ditu? Hara zergaitik dagoen hemen bertan hain elkarte gutxi —bat ere ez, deportiboak eta gastronomikoa ez badira.

Horra, bada, gainbegirada arin batek, oso arinak egia esan, ematen diguna: hiri bateko hegal industrialean bildu diren heldu berriak gera gehien bat. Badago hor zer pentsa. Baina, dena esan gabe ere, esan dezagun holako hauzoen geroa argia daitekela, noiz edo noiz bere buruaren jabe izatera irits daitekela; bere buruaren jabe, maila guztietan: lan eta sozial arazoetan, euskaltasunean, kulturan, herrigintzan. Gazteengan dago itxaropena!

## GAZTERIA

Has gaitezen, beraz, gazteengandik. Hemengo gazteek ere, eta nork ez, edonungo gazteek bizi dituzten kezkak eta gorabeherak bizi dituzte. Aipatu ere behar ote dira?

Gu hemen, ordea, lot gaitezen herreratar bezala eta herri mailan egiten dutenari. Gure aurreko gazteen lana jarraituz egiten dutenari.

Gazteak mugitzen direla, eta beste askok baina gehiago mugitu ere, ez dago dudarik: hara hor Batasuna elkartea; hara hor deportivo elkarteak; hara hor egun eta gaueko Ikasktolek duten mugimendua; hara hor, nolabait esateko Benito Lertxundiren hitzez esanaz, ilunpetako gizonak. Gutxi dela? Nahikoa ez dela? Bada zerbait! Estudianteek eman dezaketen indarraren falta nabari da, hori bai.

## "BATASUNA" ELKARTEA

Orain urte batzuk Herrerako gazteen ametsa hauxe zen: lokal bat nundik lortu, bertan bildu ahal izateko eta pertsonen ta herriaren alde lan egiteko.

Azkenean, orain bi urte La Salle-ko "Ikasle Zahar" elkartearen aldetik ikusi zen aukera hori: honen babesean ideki zen herri osoarentzat "Batasuna" izeneko lokal hori, horrela denon ametsa bete nahirik.

Biltokia lortuz gero eta lanak errazago egiteko asmoz, bertako jendea bost komisioetan zatitu zen: Kulturarena, Kirolena, Berri emaileena, Jolasena eta Beste Arazoena.

Hasieran jende asko bildu zen Komisio horietara, bainan, egunak aurrera joan ziren bezala, azalki hasi zirenak edo gauza berria zelata zegozenak aitzaki bat edo beste jarrita komisioak utzi egin zituzten. Orduan, nahiz ta komisioetan jende gutxi gelditu, langileenak gelditu ziren eta, egia esan, nahiko lan egin zen; hitzaldiak, konkursoak etab., adibidez, antolatu ziren.

Horrela gauzak jaiak heldu ziren eta aitzaki horrekin, festak gertu behar zirelakoan, bilerak utzi egin ziren. Jaiak amaituta udarako hutsunea etorri zen; bakoitzak, ohi den bezala, bere aldetik jo zuen. Udazkenerako utzi ziren bilerak, orduan berriro denak gure txokoan bildurik, indar berriarekin jarraitu genduelakoan.

Udazkenean, "lanerako egunak" iritsi zirenean, ez zen inor azaldu komisioetara, Kirolenak s a l b u. Hauek mugitu beharra zuten, aurtengo txapelketetan parte hartuko bazuten. Beste denak, egunak joan egunak etorri, gero ta gogo utxiago azalduz, ez dira biltzera ere iritsi. Hortan amaitu zaigu bigarren urte hau.

Begiratzen diogun aldetik begiratuta edozeinek ikus dezake aski gutxi direla egin direnak: kirolak eta mus txapelketa bat. Eta, bitartean, hor ikusten dugu hainbat jende plaza aldean zer egin ere jakin gabe. Zer dauka Batasunak jende hori barrena ez sartzeko?

## KIROLAREN ZENBAIT BERRI

Hori besterik egin ez dela ikusirik, edo-ta hori bederen egin dela ikusirik, Komisio hortakoei eskatu diegu beren berri eman dezaiguten. Hara, ondoren, jaso ditugun albisteak.

Hiru sailetan zati daiteke haiek egin duten lana: Balonmano, Futbola eta Halterofilia. Has gaitezen, lehenbizi, balonmanoaz.

Orain 6 edo 7 urte hasi ziren gazte batzuk deporte hori aurrera eraman nahirik. Bildu egin ziren bai, bainan inungo laguntza eta babesik gabe. Oso aldaketa gutxi izan da harrezkero. Hasierako jende berbera jarraitzen du: jokalari gehienak Herrerako kaskokoak direla esan genezake, nahiz eta Donostia eta Pasaiako bakar batzuk ere izan.

Aurten aski ondo ibili dira. Gipuzkoako Ligan 2gn. gelditu dira. Lehendakari eta F.E.-ren sarietarako ere azkenetara iritsi dira. Eta aurrera begira ere badituzte beren asmo berriak: lehenbizi, eta aurtengoa ikusirik ez zaie animorik falta, mailaz igo nahi lukete. Gaztetxoekin ere talde bat osatu nahi lukete, bainan hemen ez zaie oztoporik falta. Zerrenda luzea osa daiteke: jolas lekuaren arazoa; txikia da, zoru txarra du, eta hori gutxi balitz ere, argirik ez du. Udaletxekoak etorri ziren, orain berriro, plaza argitzeko asmoz, bainan baimena eman behar zuten zenbait bizilagunek ukatu egin zuten baimena. Borondate onaren adierazgarri ederra, ikusten denez.

Eta, azkenik, baztertu ezinezko oztopoa: diru arazoa. Ez dago inungo laguntzarik. Jolas aldietan txapela pasatzen da bai, bainan jasotakoa ez da jolaszuzentzaileari ordaintzeko aski ere izaten, eta askotan jokalari berak ordaindu behar izaten diote. Nolanahi ere, orain hemengo lantegi batek bere laguntza eskaini du, baita material eder askoa eman ere.

Neska talde bat ere bada kirol honetan, baina ez da jende gehiegirik azaltzen. Horrexegatik larri samar ibiliak dira. Ia datorren urterako neska gehiago ausartzen den eta talde polit bat osatzen den.

Aurten atera du lehengo aldiz Batasunak futbol talde bat "Nafar - Euskaldunen" txapelketarako. Hauek, lehen urtea izateko batez ere, ondo samar dabiltz eta datorren urterako gogo izugarriz. Hemen ere oztopoak lehen aipatutakoak dira: salotarako toki desegokia. Sarritan kirolari guztiak dugun toki bakar eta eskasean biltzen dira, plazan. Hori gutxi balitz, leku hori parking ere bada eta berebilez josita egoten da. Hauek ere askotan gastuak beren sakeletik ordaindu behar izaten dute.

Halterofilia ere bada gure artean, berria izan arren eta askorentzat gainera ezezaguna. Joan zen Martxoan izan ziren lenen saio batzuk eta hemengo gazte batzuk aurreneko lekuetan gelditu ziren. Gazte ta seniors mailetakoak dabiltza hortan. Federazioko laguntza lortu dute eta honengandik jaso dute beharrezko zuten materiala. Kondizio zailetan iharduten dute hauek ere, bainan ez dute animorik falta, bestela ez zuten aterako, gutxi dela, Donostian eginiko txapelketa batetan brontzezko medailarik eta ez zituzten izanen Irunen egingo den Nobelen txapelketarako dituzten asmo onak izango.

Badago, beraz, kirol zaletasunik; badago, ordea, nahiko oztoporik eta laguntza, berriz, eskasa. Interesgarria gerta daiteke, halaz guztiz ere, kirola, Herrerako gazteak lotu eta elkartzeko. Horretarako norbaitek, eta neurriz kanpo, saiatu behar badu ere, Kirol Batzordeko Lehendakaria saiatzen den bezala.

## AZKENIK BI HITZ

Gerok ikusi eta bateri ta besteri galdetuz atera dugun kuadroa hauxe da, lerro hauetan ikusten duzuna. Herrera azaletik esaten genduen hasieran. Horrela da, izan: azaletik. Zuk, ordea, herreratar irakurle, eta guk ere bai, zerbait sakonagorik nahi zenduke.

Guk hauxe erabaki genduen: erakusketaren gorabeherak bazterrera utzirik —honen berri asteroko sailetan emana baitugu— eta hortik landa ateratzen zen kuadroa ateratzen zela, argia nahiz iluna edo-ta argi-iluna, hura emango genizula, ez besterik. Zer derizkiozu atera den kuadro honi? Ez al da hau ere nahi eta ezin gogor baten adierazgarri ederra?

Eta gaurko ezin hori biharko ahala bilakatu dedin arte —ibilaldi luzea noski— iraungo ote du inork begira ta lanean?

JO-GU-KAR


**Jesus Maria Agirre**

ELEKTRONIKA - INDUSTRIRAKO LANTEGIA

J. Elosegui, 33 Urrutizkiña: 352682-352683-352684

— E R R E R A —

**«PEPI»**

Puntuzko salgaiak eta soñekogintza

J. Elosegiren Etorbidea, 15

Urrutizkiña: 35 15 35

ERRERA - Donostia

**JOSE JAUREGI ARRATIBEL**

JAN - EDATEKOAK
ETXEETARA ERAMATEN DUGU

J. Elosegiren Etorbidea, 15 Urrutizkiña: 35 11 40

E R R E R A — Donostia

# HERRERA



TXIMIST - INDAR SAILLA
Departamento ELECTRICIDAD

LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA

Aparatos de maniobra, distribución y control



OLIO - INDAR SAILLA
Departamento
HIDRAULICO

GARBE - LAHMEYER
WUPPERTAL - ALEMANIA'ko
Etxearen banaketa ta
teknika laguntza

Banaketa ta Teknika laguntza:
REX - ROTH GMBH Alemania
RUHRITAL Sp A Olio-Indarra. Italia
TUROLLA Sp A. Italia

## Goimendi - Automatismo

AUTOMATISMO

Goimendi

Lantegi ta landolak:
Jolastokieta (Herrera)
SAN SEBASTIAN
Urrut. 353840 (7 ari) ta 351860
Telex. 36173 GOIME E
Erakusketa eta denda:
Iparraguirre, 15 - SAN SEBASTIAN
Urrut. 428082 ta 428625
Ordezkaritza:
Eulojio Serdan, 18. Urrut. 228935-36
VITORIA

RICH — Odriozola y Berridi S. A.

OGITEGIA - PASTELGINTZA - IZOZKIAK

Txingurri Auzoan Urrut.: 351871-351872-351873
ERRERA — Donostia

dami

Andre eta aurrentzako oial gaiak

Jose Eloseguiren Etorbidea, 15 Urrutizkiña: 35 17 34
ERRERA — Donostia

# Utsune au ordainduta dago
# Naiz eta bere jabeak
# Izena argitarat naiz ez izan

**Errera - Donostia**




# BIDEBIETAKO ZUGATIA

Etxe - bizitzen salmenta eta
Lekuen alogerak




Zumar-bidea, 1
Urrut. 398005 - 398007
ERRERA - DONOSTIA

# HERRERA



# SABIN MUNIATEGI POETA HORI

Aspalditxotik Herreran bizi bada ere, Bizkaiko Arteagan 1912 urtean jaioa duzue. Inguru honetan behintzat, ez dela ezagutzen esango genizueke. Izen arrunta eta normala, ezezaguna, herri-ártean galtzen den horietakoa dela, alegia.

Izen apala bai, gizon apal batentzat, poesigintzan lanean eten gabe ari den olerkari trebe, yayo, sakon eta mamitsu batentzat ala-ere.

Ezezagun adiogu bai; denok dakizue nolakoa den liburuekiko euskaldunon zaletasuna. Gaur egun zaletasun hori edatzen eta zabaltzen ari bada ere, egin dezagun kontu, nolakoa izango zen Muniategik bere lehenengo liburua atera zuen garaietan, hau da, gerra hasieran, gerra artean eta ondorenean baitikbat, 1936 urtean argitaratu bait zen Muniategiren «Goiz-Aize» libur berria.

Dena dela eta egia esan, liburu hau irakurri ahal izan ez badugu ere, sinetsiak gaude Lauaxeta ospetsuak ez zuela «Goiz-Aize» liburua argitaratzerakoan honako hau alferrik esan: «Gauza guztietan idoro darua edertasunaren zantzua. Euzko-Elertiak asko itxaron daike mutil onengandik».

Egun, bere bigarren liburua «Bidean Gora» izenburuz 1970an argitara emana, irakurrita gero, geuk ere zerbait esan genezake; baina geuk ezer esan baino lehen aita Onaindiak liburuaren hitzaurrean dioena jasoko dizuegu: «Olerkaria urtez urte, esperientziz eta biotz-zirraraz azi, ugaritu ta edertu egin zaigula ezeren lotsa gabe aitortu bear».

Liburu hauetatik at Muniategiren lanak «Olerti»n azaldu dira maiz, Loiolako Herri Irratian ere behin baino gehiagotan entzun ahal izan ditugu honen olerkiak.

BIDEAN GORA-RI
BEGIRATU BAT

Azal-azaletik bada ere, kritikatxo bat egin nahi genioke liburu honi; baina beldur gara nola aterako zaigun, ez bait dugu iñoiz horrelakorik egin. Hortik anka sartzeko dugun beldurra.

Formari dagokionez liburuak, oro bat hartuta, olerkiak moldatzeko behar dituen hitz egokiak aukeratzeko eta tajutzeko olerkariaren erraztasuna dagerkigu. Puntu honetan, hitz-elkartze edo konposatze horiek, behar bada, zenbaitetan poesiaren ulertzea irakurlearengan zailtzen duela derizkiogu.

Gaiari begiratuta, gure iritziz, Muniategiren poesia, zauritua miñez zeruetan zehar egaka, iheska dohan txoria duzue, hots! atseden alditxo bat egin nahirik, leku baketsu eta zihur baten bila dohan txoria. Asko sofritu duenaren legez, eta itxaropenik galdu gabe. Ikus bestela zer esaten digun «negu ondorengo esnatze» izenburutzat duen olerkiak:

«.............................
Ai, ene biotz,
ene gogo,
ene gorputz aul, zauritu;
biztu zaitez, biztu zu ere,
ametsa darion ernealdi
arnasa betikorrez.
.............................»

Era berean «kalbarioa» deritzan olerkian, bera herriaren ale bat izanik herriaren minak negar dagio. Hartaz, poesi hau Euskal Herriaren zauriak eragindako negar mingotsa duzue. Hontara dio bertan:

«...O, au, bai, gauaren gautada
[illuna,
Au bidegite kementsu ta aztuna!
Ai ba'zenki bidegite onetan.
Zenbatzu arantza ta zenbatzu
[oztopo
zenbatzu izerdi ta odol ta malko,
zenbat irain iasan bear diran,
eguneroko ekiñaldi estuetan!...»

Bere lan gehienetan ordea, «nakarte», «nabilte», «naukazue», «narama», «ne» eta era honetara mintzatzen zaigu. Honekin zera esan nahi dugu, bere poesia jeneralean oso pertsonala, oso berea dela.

Zer esanik ez dago, ez gatozela bat aita Onaindiak hitzaurrean esaten dituen hitz hauekin: «Lan egiñik bizi da Muniategi. Langille artean dabilkigu goiz ta arratsalde. Ezaguna du, beraz, gizakiaren estura zer-jana ta ogia eskuratzekoan. Onetan gizarte olerkari dugu-ots, gaurko erara esanik «poeta soziala». Gure ustez eta olerkiren batetan gizarte-min hori azaltzen badigu ere, ezin genezake poeta soziala denik esan, alako poesi bat edo beste soziala izanik ere. Berriz diogu jeneralean hartuta oso pertsonala, poeta barnekoia (intimista) dela derizkiogu.

Bere poesietan izadiari dioen begirune eta maitasuna nabarmentzen zaio gehienbat, bertan Jainkoaren eskua dakus eragile. Honi garrantzi handia damaio, maiz oso loturik agertzen bait zaizkigu biak bere olerkietan.

Liburuak poesi asko, ugari eskaintzen digu; baina geuk aurreneko olerkiarekin amaitu nahi genduke lantxo hau «AGUR»a duzue bera eta bertan poetak bere egoneziña eta ia negiteko duen gogoa adierazten dizkigu; bere buruaren, izatearen eskaitza bat duzue:

Bizitzako
margo argi,
ta, bikañez;
egiazko
egitura zuzen
ta, ederrez...
(argi eta garbi)
biotzez,
arimaz,
biribildu
ta, iantzi nai nituke
ene bizitzako
egunok;
neure lurraren
aldezko maitasun
ta sugarrez;
benetako goitura
maitetsu
ta, gogorik zindoenez
egunik egunera,
zintzoki...
bideari oles!

GURUTZEK


**Itsasontzi Tresnak**

**MANUEL AIZPURUA**

METALEZKO LANAK, KALDERERI, KONPONKETAK

Azkuene Auzoa San Pedroko Karreteran
Pabelloia, 8 - Lasa Etxea Urrutizkiña: 390482-390683

ERRERA — Donostia

Autoa erabiltzeko...
Karneta eskuratzeko...

**SARRIEGI**

KARNETA ATERATZEKO IKASTETXE EGOKIA

Izaiaren Enparantza, 1 BIDEBIETA Bizi-tokiko Zugaztia

Urrutizkiña: Landola: 39 83 14
Etxea: 42 82 99

— DONOSTIA —

**NARRU**

ESKU-ERAKUTSI TA BIDERAKO SALGAIAK

POLTSAK, ATERKIAK

Zumar-bidea, 30 Urrutizkiña: 39 05 54

— DONOSTIA —

**Makinadun Arostegia**

**Felipe Garin**

Etxegintzarako eta karrozerigintzarako

Urrutizkiña: 35 19 35

ERRERA — Donostia

**SEMU BERRIKIAK**

OIAL ETA AURRENTZAKO SALGAIAK

Zumar-bidea, 32 Urrutizkiña: 35 26 88

— DONOSTIA —

**Antolin berrikiak**

JOSKINDEGIA

Urrutizkiña: 35 15 34

ERRERA — Donostia

**OXIGRAF**

Burni eta galtzairu

Txapa borobil eta abar...

Neurriz gertua

ERRERA - Donostia

**Ramon Vizcaino, S. A.**

OZTUTZEKO MAKIÑAK

AIDE EGOKITUA

ESPAÑAko Lantegirik Arduratsuena

ERRERA — Donostia